

ELGOIBAR

Elgoibarko VII. Idazlan lehiaketak baditu irabazleak

Ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko Udalak antolatzen duen sariketaren azken ediziora 166 lan aurkeztu dira eta 26 saritu dituzte

JABI LEON

ELGOIBAR. Elgoibarko Udalak joan den asteazkenean banatu zituen Aita Agirre kulturgunean herriko ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko helburuarekin antolatzen duen VII. Idazlan lehiaketaren sariak. Azken sariak honetara 166 lan aurkeztu dira (iaz baino 31 gutxiago) eta epaimahaiak (Jasone Osoro, Jon Eugi eta Iñigo Otaño herriko literaturzale eta idazleek osatu dute) horietako 26 saritzea erabaki du.

VII. Idazlan lehiaketaren sariak banatzeko ekitaldia abiatzeko Maialen Gurrutxaga alkateak hartu zuen hitza, beti ere, «epaimahaiak eta ikastetxeek egindako lana eskertu eta sarituak zoriontzeko». Jarraian, lanak ebaluatzeaz arduratu diren pertsonen txanda izan zen.

Epaimahaikoen hitzetan, aurtengo edizioaren balorazioa «ezin da iazkoa bezain baikorra izan, partaidetza jaitsi egin delako». Horrek epaimahakideei kezka eragiten die: «partaidetzaren jaitsierra, batez ere, goiko mailetan gertatu da, eta lanen kalitatean ere eragina izan du, ale on gutxiago izan direlako», esan zuten.

Hori dela eta, aurtengoa (DBH 1 eta 2ko ikasleentzat) eta E (Batxilergoko eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako ikasleentzat) mailetan idazlan bana bakarrik saritu



Saritutako idazle gazteak, epaimahaiko kideekin eta Udaleko ordezkariekin, sari banaketan. ASKASIBAR/UDALA

da. Epaimahaikideek erabaki hori hartu dute «beheko mailetan sarituak izatea merezi zuten ipuin nabarmengarri gehiago zeudelako». Hala ere, ez diete inongo meriturik kendu nahi irabazleei, «lan oso onak eta originalak saritu ditugulako maila guztietan».

Izan ere, epaimahaiaren iritziz, garrantzitsuena da ipuinak idatzi dituztenen talentua eta esfortzua saritzea eta, batez ere, lanaren balio literarioa aitortzea.

Hau horrela izanik, beheko mailetan balio literariodun ale ugari izan dira eta, ondorioz, A (LH 3 eta

4ko ikasleentzat) eta B (LH 5 eta 6ko ikasleentzat) mailetan, lau ipuin gehiago saritu ditu epaimahaiak. Egia esan, beheko mailako istorio batzuen kalitateak asko harritu ditu. Aldi berean, txalogarria iruditu zaie gaien aniztasuna eta protagonista narratzaile

Partaidetza jaitsi egin da aurtengoa, batez ere goiko mailetan, eta horrek lanen kalitatean eragin du, ale on gutxiago izan direlako

oso originalak aurkitzea. Edonola ere, 2024ko idazlan lehiaketan saritutako gazteak ondorengoak izan dira: A mailan: Eneko Iturralde, Ane Ramos, Alma Rescalvo, Nora Echaniz, Izaro Postigo, Anike Etxabe, Elene Garate, Nikole Zabaleta, Jare Ulibarri eta Iker Goicoechea; B mailan: Nihal Achahboun, Julen Olabarrieta, Kalare Balsera, Lore Basurto, Nora Gurrutxaga, Itxaso Garaizabal, Olatz Garmendia, Naia Eizagirre, Sara Sasiain eta Leire Etxaniz; C mailan: Unax Ansola; D mailan: Ibon Macazaga, Julen Lahoz, Duna Santos eta Erik Urresti; eta E mailan: Ivania Maybrith Alvarado.

Saritutako guztiek erosketak berrak, diploma eta liburu bana eraman zituzten etxera.

Liburuxka berria, argitaratuta

Elgoibarko Udalak VII. Idazlan lehiaketaren sari banaketa baliatu zuen 2022an eta 2023an saritutako izan ziren lanekin argitaratu duen liburu aurkezteko.

Liburuaren 300 ale argitaratu dira eta Udalaren asmoa da orain arteko edizioetako saridunei eta epaimahaikoei oparitzea. Eskoletan ere banatuko ditu ale batzuk Udalak; eta gainerakoak Udaleko Euskara sailean eta Liburutegian egongo dira eskuragai. Era berean, 2022 eta 2023ko idazlan lehiaketan saritutako lanekin kaleratutako liburuxka Udalaren web atarian izango da ikusgai.

La Diputación culmina los cambios en la carretera de Azkarate y el túnel pasa a tener un solo carril para cada sentido

J. LEON

ELGOIBAR. El departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa ya ha culminado los trabajos de pintura y señalización que ha acometido en las jornadas precedentes con el objetivo de mejorar la seguridad vial en la carretera GI-2634, que conecta las localidades de Elgoibar y Azkoitia superando el alto de Azkarate.

Con los cambios materializados, el carril de velocidad reducida ha pasado a tener prioridad

sobre el carril rápido. Además, se ha adelantado el cierre del carril adicional existente en sentido descendente (hacia Azkoitia).

Según explican desde la entidad territorial, la decisión de modificar la configuración de los actuales carriles del túnel como medida para mejorar la seguridad «es el resultado de un estudio y de haber analizado las incidencias que se han producido en ese tramo de la GI-2634 en los últimos años».

Tras la intervención que se ha llevado a cabo en el alto de Azka-

rate «los vehículos que circulan por el carril de la izquierda tienen que ceder el paso a los que circulan por el carril de vehículos lentos en el momento que confluyen en un único carril».

Con esta modificación se pretende «evitar que los vehículos que circulan por el carril lento, en muchos casos vehículos pesados, se vean obligados a reducir sustancialmente su velocidad ante la necesidad de ceder el paso a los que circulan por el carril rápido».

Adicionalmente, para aumentar la seguridad vial dentro del túnel de Azkarate, en sentido decreciente (hacia Azkoitia), se ha anticipado el cierre del carril adicional, de manera que «a lo largo del túnel ahora hay un único carril por sentido, con un cebra central que separa los dos sentidos, eliminándose el carril de adelantamiento».



El túnel de Azkarate, con un único carril para cada sentido. J.LEON